

Aldaia aske

INAXIO ALTUNAK, ALDAIAREN PARTEZ, BAHIKETAREN ZERTZELADA NAGUSIAK KONTATU ZITUEN HEDABIDEEN AURREAN

«Garaile irten naiz egoera honetatik»

Inaxio Altuna Aldaia familiaren bozeramaileak prentsurrekoa eskaini zuen atzo Donostian Oiartzungo enpresariaren bahiketaren gora-beherak argitzeko. Altunak adierazi zuenez, Aldaiak une latzak bizi izan ditu 11 hilabeteotan. Alabaina, enpresariak berak egun hauetan esan duenez, bahiketatik garaile irten den irudipena du.

I. Petxarroman / Donostia

HASIERAN irakurri zuen idazkian Inaxio Altunak eskerrak eman zizkien 11 hilabete hauetan familiaren ondoan izan direnei, eta bereziki, Alditransko langileei, agertu duten leialtasun eta laguntzeko gaitasunagatik. Ondoren komunikabideei eskatu zien hemendik aurrera «laguntzeko aldaiatarrek normaltasuna berreskura dezaten, eta ildo horretan telefonioa ahaz dezaten galdegin zien».

Hau esan eta gero, Altuna bahiketari buruzko xehetasunak ematen hasi zen. Horrela, apaiz gipuzkoarrak azaldu zuen Jose Maria Aldaia bahituta izan den 341 egunotan 3,5 metro luze, metro bat zabal eta 1,95 metroko altuera zuen gela batean izan dela, bertatik inoiz atera gabe. Hala ere, aldaiatarren bozeramaileak azaldu zuen gela txiki hori aireatu egiten zela bahitzailak sartzen ziren bakoitzean. Une horietan gelaxkaren atea irekita uzten baitzuten.

Altunak esan zuenez, Aldaiak «oso une latzak» bizi izan ditu hilabete hauetan: «Hainbat aldiz bere bizitzari buruzko oroimenak eta bere familiaren egoerari buruzko pentsamenduak izaten zituen. Batzuetan zoratzeko zorian izaten zen, baina ariketa fisikoa egiten zuen eta erreuperatzen zen une gogor horietatik». Familiaren bozeramailearen hitzetan, Aldaiak aurre egin die hilabete hauetako «borondatea eta antolatze oso gaitasun handia» izan duelako.

Bahitzaileekin tratu «normala» eduki du • Bahitzaileekin izan duen harremanari buruz, Inaxio Altunak aitortu zuen «harreman normala» izan duela bahitzaileekin, zehatzago, bahiketaren zain- tzen egon den pertsona bakar- rekin. Zerbait behar zuenean, Aldaiak deitu egiten zuenean pertsona bera agertzen zen beti. Pertsona hori gizonezkoa zen eta «goizean, eguerdian eta gauean etortzen zitzaion janaria ekartze- ra. Egia da batzuetan eskatu zie- la hiltzeko eta betiko bukatzeko, baina hori tentsioaren eraginez gertatzen zen. Berak ez zuen ulertzen zergatik egokitu zitzaion berari egoera honetatik pasatzea, eta horregatik batzuetan disku- titzen zuen bahitzailearekin, eta beste batzuetan ere negar egiten zuen depresioaren eraginez.

Jose Maria Aldaiak liburuak eskatu zizkien bahitzaileei, eta hauek eman egin zizkieten; batez ere, historiari buruzko liburuak eta eleberrak. Musean ere ari- tzen ziren. Altunak prentsurre- koan azaldu zuen maiz jokatzeko zutela musean, eta kirolari bu-



Inaxio Altunak, Aldaia familiaren bozeramaileak, bahiketaren zehaztasunak eskaini zituen prentsurrekoan.

EDURNE KOCH



Aldaia, Ertzaintzaren autoan, Irungo epaitegitik ateratzean.

EDURNE KOCH

ruzko informazioa jasotzen zuenez, kirolez hitz egiten zuten, Realaren egoeraren inguruan, esaterako. Horrez gain, bere urtebetetze egunean bahitzaileek zoriondu egin zuten eta janari berezia prestatu zioten. Egundorretan eta gabon gauean ere txanpaina hartu zuten.

Inaxio Altunak jakinarazi zuenez, bahitzaileek sei edo zazpi aldiz agindu zitoten Aldaiari laster askatuko zutela, baina gero, «egoeraren zailtasuna eta eragozpenak» aipatuz, atzera egiten zuten eta ez zuten askatzen. Hori «kolpe gogorra zen Jose Marirentzat eta depresioak jotzen zuen»,

agertu zuen Altunak.

Bahiturik izan den 11 hilabeteotan Aldaiak ez du inoiz denboraren nozioa galdu, Altunak onartu zuenez. «Egunean zehar hiru aldiz ekartzen zitoten janaria, eta berak egunak hiru otorduen arabera kontatzen zituen». Erreskaterik pagatu duten ez dakela ziurtatu zuen Altunak.

Bahitzaileak ez dituela gorroto agertu die Jose Maria Aldaiak egunotan senideei. Hala ere, Altunak onartu zuenez, «ia urte honetan bizi izan duena ez du sekula ahaztuko. Dena den, atzo bertan esan zuenez, garaile irten den irudipena du».

Behatz-koskoak eta denbora

HIRU metroko luzera, metro bateko zabalera eta bi metroko altuera zuen gelaxkan Aldaiak milaka kilometro egin ditu 11 hilabeteotan. Egundorretan egiten zuten ariketa gelaren alde batetik bestera mugituz. Gainera, asmatu zuen metodo bat egiten zituen distantziak neuritzeko, horretarako garbantzua erabiliz. Horrez gain, denbora oso zehatzekin kontrolatu duela agertu zuen Altunak. Otorduez baliatzen zen egunak kontatzeko; hila- bateak kontatzeko, aldiz, eskumuturretako behatz-koskoak baliatzen zituen hileak 30 edo 31 egun zituen jakiteko. Hiru egunetan esan zitoten zer egun zen —bere urtebetetzean, Gabon-gauean eta askatze egunean— eta hiruretan Aldaiak bazekien aldez aurretik egun horiek zirela. Beraz, bazekien apirilaren 13an askatu zutela.

Jose Maria Aldaiak bahituta egon denean pare bat aldiz sukarra eta beheakoa izan zuela adierazi zuen Altunak. Horrelakoetan bahitzaileek botikak ekartzen zizkieten. Garbitasuna ere asko zaintzen zuela azaldu zuen. Enpresariari arropak zenbatero aldatzen zizkieten galdetu zio- te-

nean, barrukoak eta maindi- reak egunero aldatzen zizkio- tela erantzun zuen Altunak.

Aldaiaren zaindaria hark deitzen zion bakoitzean etor- tzen zitzaion, Altunak azaldu zuenez. Berarekin zuen harre- mana, enfrentamendurik izan zuen arren, ona izan zela azal- du zuen. Halaber, tratua ona izan zela azaldu zuen, «egoera larri hura gehiago larriagotze- ko ez zuten ezer egin».

Bahitzaileek beharrezkoak ziren ikustaldiak egiten zizkio- ten, Altunak zehaztu zuenez: otorduak emateko, musean jokatzeko eta euskara ikasten hasi zenean sarriago; izan ere, ariketak jartzen zizkion zain- dariak eta egin ostean zuzendu egiten zizkion.

Hiru otordu egiten zituen egunean. Gosaltzeko zutela, kafesnea eta aleak ematen zi- zkion normalean. Bazkaltze- ko lekak eta haragia gehi- en- tan, eta afaltzeko, berri- z, ba- razkiak eta arraina. Une ho- rietan, Aldaiak sumatzen zuen berarekin zegoen pertsona- z gain, atearen beste aldean beste lagun bat izaten zela. Izan ere, atea zabalik uzten zuen eta platerak hartu ondo- ren, besoa luzatu eta kanpoan zegoenari ematen zizkion. X